

Begiekaz ikusi ezin dana

Zeberio erdi Arratian erdi Bilbo hasten dan lekuan dago orain, eta lehen ere halantxe egoan kilometro batzuk gorabehera

Igor Estankona

O rain dala ez asko altzairuak eta kapitalak eta beharginen esku haustuek Bizkaia beste sasoi batera bultzatzen eben, astiro baina gelditu barik. Bizkaia zubia da egun miragarri horreitatik zutunik gelditan jakun sinbolo argiena. Espilu lohi haretan ikusten ziran aldakuntzaren bi aldeak, bata gaztea eta argia, bestea zaharra eta behe lainozkoa.

Oiloak besapean zein puroa hagin artean, jenteak normaltzat eukan ibaiaren ganeko ibilbidea hori baino gehiago zan. Sinboloen mailako zeozer. Baina horretaz konturatuteko bistan da gaurko perspektibea behar dala. Zorriak buruan zein korbatea samara lotuta, danantzako mende baten hasikerea izan zan, mendeak askotan ez dira-eta egutegiak diñonean hasten. Batzutan lehenago hasten dira, beste batzutan beranduago. Beste batzutan ez dira hasi be egiten.

Bada, probintziari Lauaxetak aitatutako buruko orlegia arean amatau eta bihotzeko sua hazten joakon. Sasoi hori berori ez zan bardina izan, berbarako, Artean. Orain be leku bakotxean gauza bat izango dala esango dozue, baina industriaren trenak eta labrantzearen trenak alkar jotea beste erremediorik ez dabe euki betidanik. Gaur egun be burdinbide bardinetik bata Bilbora eta bestea Donostiera doazen arito bi dira. Baina asmau daikedan edozein metafora baino argiagoa da Zeberio kasua, lehen ipini dodan adibidetik –nire Arteatik– Sarasolako ganeak banatuten dauan herri luzanga. Erdi Arratian erdi Bilbo hasten dan lekuan dago orain, eta lehen ere halantxe egoan, kilometro batzuk gora-behera, gaurko aldeak eta ordukoak berberak ez badira be. Hain urrin be ez dagoan egun batean goldea pasatu eben Zubialde errekatik gora, idiekaz, beste batzuk kontratua ixten izan ziran bitartean

OKERRAK ZUZENDUZ

Nork ikusi? Alkar ikusi

OKER

- * Urtarrila hasieran gagoz, eta urte osoa daukagu aurretik.
- * Urria alderako amaitu beharko ditugu beharrok, ezta?
- * Apirila amaieran gauzak hobeto joango diran itxaropena daukat.

ARTEZ

Urtarril hasieran gagoz, eta urte osoa daukagu aurretik.
Urri alderako amaitu beharko ditugu beharrok, ezta?
Apiril amaieran gauzak hobeto joango diran itxaropena daukat.
Oharra: Hilan izenetan, artikulua da azkeneko-a. Horrexegaitik, urtarril hasieran, urri alderako, apiril amaieran...

Glasgow edo Liverpooleko baten bategaz. Zeberioztarrak be, zelan edo halan, mende barri bat hasten eben errekan itaurren eginez, laminen bila. Ez da nire asmoa hori txarrerako edo onerako izan zan epaitutea, izan be, bakotxak bere modura pasatzen dauz eta historiaren orrialdeak.

Armozu orduan arpegi luzeak ziran nagusi. Inork ez eban ezer esaten, nahiz eta pozik entzungo eben danak aurrera segitean kontrako eretxi lotsakor bat. Eurretako edozeinen dudazko berba erdi nahikoa izango zan agur esan eta etxeetara bueltetako. Baina ebatzia hartuta egoan. Uretan arrankariak eta ezkailuak baino zeozer gehiago baebilen, ordukoa zan topetako eguna. Sentipen hil horrexek, poztasun bako beharleku harek altxatu arazo zituan aulkietatik. Atea zabaldu eta eurien osteko landa joriei begira gelditu ziran. Errekaren marmarra entzuten zan urrinean. Ez eben egun osoan besterik entzungo.

Imaginau neinke pozo sakon batetik pasakeran Bizkaitar hareik sentiduko eben bildurra. Eta badakit bihotzeko parterik dabilenean laminek egon baegoza sinistuten ebela. Egun batetik bestera guztiz kanbietan zan munduari pasetan eutsien goldea. Aurrerantz egiten eben metro bakotxeko,

atzerantz egiten eban betiko Zeberio. Errekarien edozein zarata promesa bat zan, euren bizimodua eta sinisteak oraindiño egiazkoak zirala aginduten eutsien seinale. Ur aspiko errama bat katigituta geldituten bazan, denporea bera be katigituta geldituten zan, ez atzera ez aurrera. Urre-gorritzko orrazidun andra baten bizker-hazurren zaratea zan zozoak sasi artean ataraten ebana. Bildur eta esperantzazko nahastea ederra baina gogorra izaten da.

Ur lupeztuetatik oilo hankadun dama bat agertu eta itaurren ebilen danak bertan hilda geldituko balira be, ez zan barri txarra izango jente harentzat. Atzen baten, betidanik arzoia izan dabela esan gurako leuke horrek. Baina atzineko denporek ez dabe modernidadea garaitu. Aldatu bai, eta baldintzapetu, baina ez garaitu. Errekako jaiotzara heldu ahala, tristetu egin ziran laminen atzean ebiltzan horreik. Halako baten gelditu egin ziran eta, zibilizazio oso bat salbau gureko balebe moduen, euren artean berba egin eta aurre-rantzaz ez joatea ebatzi eben. Gogorregia zan eurentzat laminik ez egoala onartutea.

Ehun metro eskas falta ziran errekea iturri txiki bat baino ez dan lekuraino. Idieri buelta emon arazo eta erretiratu egin ziran. Ehun metro eskas hareitan egoazan Zeberioko lamina guztiak, estu-estu, errezoan. Eskatutako milagroa eskeini jakien, antza.

Gizonak etxera bueltau ziran baina inoz ez jakien entzun laminik ez egoala esaten. «Baleitike egotea. Guk ez doguz ikusi» esaten eben. «Baleitike egotea, errekea azkenerrantz lar mehea da idiekaz ibilteko». Gero, gauean, danak lo dagozala, zerua zabaldu eta Mari agertu zan txatarra dariola Baltzolatik Gorbeiarako mudantzea egiteko. Handik goitik, betiko galdu ez egiteko ahaleginean ebilen Zeberioztarren munduari maitasunezko amenazu bat bota eutsen.

JABI ZABALA

KAZETARIA



GARI GARAJALDE

«Lankideok bizkaieraz egiten dogu, bakotxak bere erara»

Iban Ocio | BILBO

Irratia.com webgune barritzailea osatu dauan taldeko kide da Jabi Zabala.

■ **Euskara hutsezko irratia da zuona. Euskalkiak hala euskara batua erabiltzen dozue?**

Lankide gehienok bizkaitarrrak gara. Gure artean bizkaieraz egiten dogu, bakotxak bere erara, noski. Errazagoa da lagunarteko hizkeran jardutea euskara alfabetatua (batua) erabiltzea baino. Naturalagoa da.

■ **Bizkaierak badauka lekurik irratsaioetan?**

Esatari gisa jarduteko euskara batuaren arauak hartzen ditugu aintzakotzat. Jakina, bakotxaren herriko esakerak ere tartekatzen doguz. Dana dala, euskaldun oro entzun dezakeen irrata da gurea eta alait hizkera neutroena erabiltzea da egokiena.

■ **Komunikabideetan euskalkiak indartzeko saioak egin beharko litzatekez?**

Herri mailako hedabideetan euskalkiak erabiltzari egokia deritxot. Ostera, eragin eremu zabalagoko komunikabideetan euskara batua erabiltzea da zuzenena.

■ **Eguneroko hartu-emo-netan, egoeraren arabera-ko erregistro aukeraketa egiten dozu...**

Lagunartean, beti bizkaieraz. Holangoetan gustora jardutea da garrantzitsua. Elkarriketa akademikoetarako lagaten dot batua.

■ **Bizkaierearena izkutu-ko aberastasuna dala aita-tu dozu...**

Joskereari lotutakoa, hain zuzen be. Soinu sano politik dira bizkaierearenak.

IRAKURBIDEAK

Arduraduna ■ Unai Elorriaga

Arratsalde barri honetan

Arratsalde barri honetan hatzazalak margoazten vals baten zurrumbilo linburtzailean sartzen hasia ikusten zaitut. Zure begiak ezti tanten kolore, zure ulea noizean behin eguzkiak txipristindutako basagaztaina. Ohe ganetik amaren ezkonsarirako monja batek bordaturiko ator zuria hartu dantzalaguntzat eta jiraka zabilz ortozik, hondartzatik ekarri dozuzan harea garauak gela guztitik sakabanutuz. Ai Lula, betiko neurea zaitut, ezkerreko betazpian dozun orein marroka horregaz, ume txikienak moduko agin karratu horrekin, oin lakarrotako behatxiker nagiez.... Eta jakina, pinpilikada bortitz bat egiterakotan, apain mahaiko Chinako portzelanazko argimutilla lurrera botatzeko oso gitxi falta izan jatzu. Txilin egin deustu bihotzak papar barruan. Zoratu egin jatzu ala? pentsa dozu

eta, formal-formal biloztu egin zara. Zenbat gauza dozu niri kontatzeko, pitxin horrek! Neure izar maiteenak, alaienenak, tristeenak! Ispilura adi zagoz. Loditu egin zara, ez? *Culotte de cheval* dinozu ipurmamintetan esku ahurrez txalo bat eginaz batera. Baina sinistu egizu: airoasaxo zagoz, etzaitez kezkatu. Ispilua dozu bai, umetan blusapean alegiatu nahi zenduan eta jadanik apaindua izan dan emakumetasunaren autorle. Zein hodeitara joaten zara zure bular biribil beteok xor-xor lantzen dozuzanean. Ahaztu ete dozu zure ederraren ixuria? Ez, ez, estetika arazoa da dana... Footing egitera joango zara ilundian.

Valsaren doinuak euria dirudi; kristalezko eskilara bat lez sartzen jatzu sekula dantzatuko ez dozun vals hori amestuterakotan.

Inoiz ez dau ferekatuko zure ulea, ez ditu

lantzanduko zure ezpanak, ez ditu biztuko zure begiak bere begirada bizi sentikor opatzailaz baina, zein gogo onez barruratzen dozu ezintasun hori!, ametsetarako ezagutu dozulako eta ez deutozulako ezer eskatzen. Noizbehinka moilan zehar paseo bat egitea baino ez dozu espero, izarren pitzatuetatik zoriona susmatzeko lagun izan dakizula. Ez dagitsula ilundu betargi ameskoia, ez dagitsuzala izoztu musika eskuok, ez zagizala astindu, usoño, errealitateak!. Nork mamaite zaitu nik baino gehiago! (...). Amak edo inork ez, neure kuttuna, nire bihotzeko izarra, nire intxaur ezitia.

Uneka... gaba liburitik jasoa.

Egilea: Miren Agur Meabe

Argitaletxea: Labayru Ikastegia